

Voxen diskurtso sozialista



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Eusko Legebiltzarrean Voxeko parlamentari den Amaia Fernándezen diskurtsoaren zati bat entzuteko aukera izan nuen, azkeneko osoko bilkura-koa. Pentsatuko duzuen legez, gezurretik bizi den alderditik gezurra baino ez zen entzun. Gaia zein den ere, horraino, zahar-rrak berri esan genezake.

Baina gaia euskara zen. Eta euskararen kontrako diskurtsoan, berezitasun bat dago. Ez da soilik Voxena.

Voxeko Amaia Fernándezen 2021eko diskurtsoa PSEko Idoia Mendiaren 2016ko berbera da.

Buruzagi bi horien esanetan, euskarak diskriminatu egiten du, funtzionario izateko derrigorrezkoa ei delako euskaraz jakitea. Ez naiz gezur horren kontra argudiatzen hasiko: 2016an egin nuen hori.

Beste zerbaitek arduratzen nau gai honetan: alderdi sozialistak ez duela bere jarrera aldatu. Pentsa, azkeneko osoko bilkura horretan, 2021eko urriaren 7an, Alonso parlamentari sozialista euskarari buruz berbetan hasi eta, sarreran bertan, beste ezer baino lehenago, ETAr egin zion aipamen. Euskara entzunda, ETA aipatu. 2021ean, PSEk.

Horretaz aparte, gauza berri gutxi esan zuen PSEk bilkuran. Arduratuta dago langabe gehiago dagoelako euskaraz ez dakitenean artean, elebidunen artean baino. Baina ez du proposamen zehatzik egiten.

Esaterako, A eredia kentzea eta lanbide-heziketan euskarazko eskaintzari Jaur-laritzak gaur egun jartzen dizkion mugak ezabatzea. Horrelakorik ez.

Badu, baina, proposamen zehatz bat: "Behar-beharrezkoa da Administrazio-ko langileen euskararen ezagutza Euskadiko eskualde bakoitzeko errealitate soziolinguistikora egokitzea". Egingo ez balitz bezala. Benetan ez daki PSEk hori horrela dela? Ez daki administrazioe-tako hizkuntza-eskakizunen derrigor-tasun-datak administrazio horren era-gin-eremuko elebidunen ehunekoaren arabera ezartzen direla?

Nire aldetik, askotan esan izan dut: prest nago administrazioarekin euskaraz egiteko legez dudak eskubideari uko egiteko (total... oraindino gehiegitan betetzen da Baldin Badaren "zertarako eskubidea, biderik ez badago"), baldin eta, trukean, euskararen ezagutza orokortzearen kontra daudenek onartzen badute EAEko eskola guztietan euskara irakatsiko dela, ikasleak atera daitezten "bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina" jakinda.

Alegia, bete dadila sozialistek duela 39 urte bozkaturiko legeak dioena.

Horretarako, ezinbestean, eskolan murgiltze-eredua behar da, eta eskolatik kanpora erakunde arteko lan bateratua, gazteen aisialdi antolatua nagusiki euskaraz eskain dadin. ●

Sorginkeriak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Azken denbora hauetan, euskal zinema egoera onean dagoela ezin uka. Gero eta film gehiago plazaratzen da, eko-feminismoaren zirrikitutik ekoiztuak. Interesgarriak denak. Baina, aktoreengatik agian, *Goenkale* telesailaren jarraipen handiosak iruditzen zaizkit guztiz gehienak. Halatan, Pablo Agüeroren *Akelarre* pelikulan, Kevin ikusi nuen, behialako Atxuri tabernako zerbitzaria, De Lancre Rostegi epailea bere egoitzan hartzen duen Urruñako apezaren larruan. Baina bego...

Deabruak hor dabilzkigu, emazte sorgintuak eta Mariren ondorengoak aipa-

tzen ditugun ber. Luziferrekin obsesio bat badugula erran nezake, hori agertzen dute bederen *Akelarre* eta Eugene Greenen *Atarrabia & Mikelats* obrek, ezagutzen ez ditugunak deabrutzen ditugula, etsaiak deitzen genituenak, modernismoa eta post modernismoa –Greenen ekarrian, generoaren teoriaren kritika aurkituko dugu perpaus soil baten bihurrian– eta *Akelarre*-n bezala, biziak salbatzeko, gure buruak deabrukerietara plegatzen gabiltza, izuaren holtzetatik hegaldi suizidak egin aitzin.

Ez al gaitu ez garenak izan nahiak sorgintzen? ●